

GOBERNU ONAREN KODEA

30/03/2015



AURKIBIDEA

1. SARRERA _____ *¡Error! Marcador no definido.*
2. PRINTZIPIOAK _____ *¡Error! Marcador no definido.*
3. BETEBEHARRAK _____ *¡Error! Marcador no definido.*
4. ALDAKETA ETA EGUNERATZEA _____ **9**

1. SARRERA

Innobasqueko Zuzendaritza Batzorde, Batzorde Betearazle, Zuzendaritza Kontseilu edo beste edozein gobernu-organotako kideok gobernu korporatiboko jardunbide egokiak garrantzitsu eta beharrezko elementutzat hartzen ditugu, ez bakarrik elkarte gisa bere helburuak egoki garatzeko, baita bere gizarte-egitekoa eta bere jardueran gardentasuna sustatzeko ere.

Honela, Innobasqueko gobernu-sistemak bere bazkide eta interes-taldeen errekonozimendua eta konfiantza ditu helburu, eta honako hauen inguruan antolatzen da:

- **Elkartearen Estatutuak.**
- **Gobernu Onaren Kode** hau, gida gisa balio diguna, Innobasqueren jarduera bere Estatutuetan ezarritako xede eta helburuetara egokitze.

Zehazki, oinarrizko 9 printzipiotatik abiatuko gara.

- I. Berrikuntza
- II. Osotasuna
- III. Independentzia
- IV. Gardentasuna
- V. Komunikazioa
- VI. Abstentzioa
- VII. Kargua prestasunez eta arduraz betetzea
- VIII. Bereizkeriarik eza

IX. Lankidetza

Geure gain hartzen ditugun konpromisoetarako oinarriak dira, eta konpromisoak ondorengo betebeharrak hauek biltzen ditugu:

1. Berrikuntza
2. Araudia betetzea
3. Isilpekotasuna
4. Interes-gatazken tratamendua
5. Innobasqueren irudi publikoaren zaintzea
6. Bilerak egoki prestatzea eta horietara joatea
7. Parte-hartze aktiboa bilera eta zereginetan
8. Opari eta erregaliekiko jarrera
9. Komunikazioa
10. Lankidetza

Ondorengo ataletan azalduko ditugu printzipio eta betebeharrak hauek, Innobasqueko gobernu-organoen jardura-gida izango direlarik.

2. PRINTZIOAK

I. BERRIKUNTZA

Irmo eta iraunkorki berrikuntzaren alde egiten dugu, eta irekita gaude ideia, kontzeptu eta erronka eta aukerei aurre egiteko era berrietara.

II. OSOTASUNA

Sistematikoki eta iraunkorki, dedikazio, fede on, leialtasun eta zintzotasunez jokatuko dugu, une oro bat etorri Innobasqueren misio eta helburuekin. Gure egitekoak betetzerakoan bikaintasuna, kalitatea eta eraginkortasuna bilatuko ditugu, betiere esparru juridikoa errespetatuz.

III. INDEPENDENTZIA

Beti iritzi-askatasunez jokatuko dugu, era objektiboan eta inpartzialtasunez.

IV. GARDENTASUNA

Gardenak izango gara eta hurbil-errazak; informazio-eskubidea bermatuko dugu geure jardueraz, bereziki Innobasqueren interesen aurrean interes-gatazkak sortzen direnean.

V. KOMUNIKAZIOA

Berehala emango diogu Innobasqueri sortu zaizkigun interes-gatazka horien berri, eta horien garapenez informatuta mantenduko dugu.

VI. ABSTENTZIOA

Uko egingo diogu deliberazio edo botazioetan parte hartzeari, dagozkigun interes-gatazkek erasandako gaien inguruan.

VII. KARGUA PRESTASUNEZ ETA ARDURAZ BETETZEA

Karguak dedikazioz beteko ditugu, Innobasqueren misioari lagunduko dioten ideiak eta ekintzak bultzatuz, eta une oro gure erabaki eta jardueren erantzukizuna hartuko dugu geure gain.

VIII. BEREIZKERIARIK EZ

Giza Eskubideak eta askatasunak sustatuko ditugu, jarduera diskriminatzaileak saihestuz eta gizon-emakumeen artean berdintasuna sustatzeaz arduratuz.

IX. LANKIDETZA

Elkartearen helburuak eta helmugak lortzeko lan egingo dugu, lankidetzaren balioa berrikuntzaren bidean ezinbestekoa dela ulertuta.

3. BETEBEHARRAK

1. BERRIKUNTZA

Berrikuntza bihurtuko dugu Innobasqueko gure jardueren erdigune, epe luzera balioa sortzeko, eta egokigarritasunaren eta irekitze iraunkorraren alde eginez.

Horretarako, galdetuko diogu geure buruari, eta baloratuko dugu, une oro, ea gauzak egiteko modu tradizionalak eta egungo metodoek egokienak, beharrezkoenak eta eraginkorrenak izaten jarraitzen ote duten.

Behar izanez gero, etengabe sustatuko ditugu aldaketak pertsonak, prozesuak eta baliabideak kudeatzeko eran.

2. ARAUDIA BETETZEA

Lege, arau eta erregulazio-betebehar guztiak beteko ditugu hitzez hitz, beren espiritu eta helburuetan, bai Estatukoak eta bai nazioartekoak, horien artean barne-politikak eta araudiak ere kontuan hartuz.

Ondo ezagutzen ditugu Innobasquen betetzen dugun karguari dagozkion araudi edo erregelamenduak.

3. ISILPEKOTASUNA

Sekretuan gordeko ditugu gure karguagatik ezagutzen ditugun isilpeko informazioak, jende guztiaren ezagutzara jarri arte, behintzat.

Innobasqueko gobernu-organoen bileretan deliberazio-gai diren arazoei buruz zuhurtasuna mantenduko dugu.

4. INTERES-GATAZKEN TRATAMENDUA

Interes-gatazka dagoela ulertuko dugu Innobasqueko interesek eta norberaren interes pribatuak edo zuzeneko senideen interesek edo hirugarrengoekin partekatuek topo egiten dutenean eta guk gai horiekiko erabakietan esku har dezakegunean.

Berehala emango dugu sartuta egon gaitzkeen interes-gatazka horien berri, eta ez dugu parte hartuko Innobasqueri eragin diezaioketen erabakietan, betiere horrelako egoerak baldin badaude, eta ez gara horiei buruzko isilpeko informazioaz baliatuko.

Onartzen dugu Innobasquerekin, zuzenean edo zeharka, izan ditugun merkataritza-harreman eta eragiketak egoki jakinaraztea dagokion Batzordeari, horien onarpenaz erabaki dezan.

5. INNOBASQUEREN IRUDI PUBLIKOA ZAINZEA

Gure lana era eredugarrian beteko dugu, leialtasunez, balioak transmitituz eta, egoerak eskatzen duenean, Innobasqueren enbaxadore gisa jokatzuz. Eta bere irudi publikoari kalte egingo dion edozein ekintza edo ez-egite saihestuz.

Innobasqueren aurrerapenak bere interes-taldee jakinaraziko dizkiegu, eta Innobasquen gure egitekoak betetzerakoan bazkideentzat eta herritarrentzat hurbil-errazak izango gara, legetan aurreikusitako salbuespen bakarrekin.

6. BILERAK EGOKI PRESTATZEA ETA HORIETARA JOATEA

Geure karguari dagozkion egitekoak inplikazioz beteko ditugu, gure ahalegina dagokigun organoaren etengabeko hobekuntzara bideratua dagoelarik.

Gobernu-organoen eta kudeaketa-organoen, lantaldeen edo dagozkigun batzordeen bileretara erregulartasunez etortzera konprometitzen gara.

Egoki prestatuko ditugu dagozkigun bilerak, eguneko gai-zerrenda eta eskura dagoen laguntza-materiala aztertuz.

7. PARTE-HARTZE AKTIBOA BILERA ETA ZEREGINETAN

Gure egitekoak, ikuspegi estrategiko eta plangintzarekin beteko ditugu, egungo arazoak konpontzeko eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko.

Gure irizpide eta esperientziarekin, ikuspuntuak aberasteko ekarpena egingo dugu, erabakiak behar beste oinarrituta hartuko direla bermatzeko.

Beharrezko denbora eta ahalegina eskainiko diogu Innobasqueri buruzko gaien jarraipen egokia egiteari, bere misio, politika eta jarduera-planei dagokienean eguneratuta egon gaitezen.

Bileretan, ideiak, proiektuak eta informazioa partekatuko ditugu, proiektua benetan garatu ahal izateko gainerako lankideekin.

Jarduera-konpromisoak hartuko ditugu, Zuzendaritza Batzordeak eskuordeturiko zeregin bereziak egiteko, eskura jarritako baliabideak eraginkortasunez erabiliz.

8. OPARI ETA ERREGALIEKIKO JARRERA

Innobasquen dugun kargua betetzerakoan, ez dugu eskainiko eta onartuko oparirik, gonbidapenik edo bestelako pizgarririk, Innobasqueri dagokion erabakietan eragin dezakeenik, ohiko gizarte- eta kortesia-usadioetatik haratago baldin badao, behintzat.

Halaber, ez dugu onartuko ez geuretzat ez gure senitartekoentzat mesedezko edo pribilegiozko tratu justifikatu gaberik, gu Innobasquekoak izateagatik.

9. KOMUNIKAZIOA

Idatziz jakinaraziko diogu Innobasqueri gure lanbide-egoeran edo bestelako egoeraren batean aldaketarik gertatzen bada, baldin eta guk Innobasquen dugun ohiko jarduerari eragiten edo Innobasqueren ospeari kalte egiten badio horrek.

10. LANKIDETZA

Lankidetzaren sistema edo talde bat osatzen dutenek helmuga bat lortze aldera baterako lana egiteko filosofia da, funtsezko alderdiak izanik i) xedea partekatua eta adostua izatea, eta ii) xede hori lortzeak gobernu-organoetako parte garen jendearen arteko elkarlana inplikatzeko. (Ikus "Berrikuntza-balioetan oinarrituriko gizarterantz. Innobasque balioen liburu berdea").

4. ALDAKETA ETA EGUNERATZEA

Zuzendaritza Batzordeak, bertan aurrez aurre edo ordezkaturako kideen gehiengoz hartutako akordio bidez, Gobernu Onaren Kode hau onartu edo/eta aldatu ahal izango du bere edota presidentearen ekimenez.

Zuzendaritza Batzordeak bere gain hartzen du Gobernu Onaren Kode honen eguneratzea sustatzea, une bakoitzean indarrean dagoen araudira eta elkartearen gobernantza-ereduaren premietara egokituko dela ziurtatzeko.